

Eneko Goiak etxebizitza, segurtasuna eta turismoaren kudeaketa jarri ditu Donostiaren lehentasunezko erronken artean

Alkateak Politika Orokorreko Osoko Bilkuran adierazi du hirian mugikortasunak izango duen iraultza eta Zientzia eta Ezagutzaren Hiri gisa duen posizioa indartzearen aldeko apustua

Eneko Goia Donostiako alkatearen ustez, etxebizitzarako sarbidea, segurtasuna eta turismoaren kudeaketa dira Udalak bere udal-kudeaketan hartu behar dituen hiru lehentasunak. Etxebizitza berrien sustapena, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, hiri-garapen berriak edo bizitzeko formula berriak sortzea dira Donostiako alkateak lan-ildo gisa aipatu dituen proposamenetako batzuk.

Udaleko Politika Orokorreko Osoko Bilkuran egindako hitzaldian egin du analisi hori Goiak. Alkateak esan du, gainera, hiriak aurre egin behar diela Topoaren pasanteak, Abiadura Handiko Trenak edo Isuri Gutxiko Eremuak ekarriko duten mugikortasun-eskema berriaren erronkei, eta Donostiaren ardatza Zientziaren eta Ezagutzaren Hiri gisa indartzearen alde egin du, hirian garatzen ari diren proiektu berrien bidez.

Hiriaren egoera aztertzeko urteko osoko bilkurak Donostiak eskaintzen dituen magnitude eta datu nagusien balantzea egiteko balio izan du. Hala, Goiak adierazi du hiriak langabezia tasa txikiena eta *per capita* errenta altuena duen Estatuko hiriburua izaten jarraitzen duela, “eta horrek agerian uzten du gure hiriak aberastasuna sortzeko gaitasun handia duela”. Hala, BPG erreala %5,5 hazi da iazko datuekin alderatuta, zerbitzu aurreratuen eta ezagutzari lotutako enpresen tirakadari esker.

Horrekin batera, enpresa-dentsitate handiena duen Estatuko hirugarren hiria da Donostia, Bartzelona eta Madril baino ez baititu aurretik —mila biztanleko 80 enpresako ratioa du—, eta Bilboren aurretik —hurrengo da rankingean, 73rekin—.

Etxebizitza politika

Etxebizitza eskuratzea “donostiarren kezka handienetako bat” da gaur egun, eta, horregatik, alkateak lehentasun gisa ezarri du “hainbat tipologiatako” eskaintza berria sortzea, “askotariko errealitateei erantzuteko”. Horretarako, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean aritzearen alde egin du, lantalde bat osatuko baitute arazo horri aurre egiteko eta bi administrazioek arazoa konpontzen nola lagun dezaketen ikusteko.

Goiak jakinarazi duenez, azken urteetan 925 etxebizitza berri sortu dira segregazioari esker (426) edo erabilera aldaketari esker (499). Aldi berean, Udalak etxebizitzetan ematen diren jarduera ekonomikoak lokal hutsetara pasatzeko aukera aztertzen duela esan du, horrela lonja horiei erabilera eman ahal izateko eta, era berean, gaur egun beste jarduera bat duten etxebizitzak higiezin merkatura ateratzeko.

Prensa Oharra

Nota de Prensa



2030. urteko hiria

Eneko Goiaren hitzetan, zientzia eta ezagutza dira datozen urteetan hiriak izango duen funtsezko apustuetako bat. Cotec Fundazioaren ikerketa baten arabera, Donostia I+G+Bko inbertsioan Estatuko lehen hiria da, eta eremu hori indartzearen alde egin du. Azken urteotan, zientziari eta berrikuntzari lotutako enpleguak %32 gehitu dira, bereziki bioteknologiaren arloan. Hala, Mubil elektromugikortasun poloa, Donostia International Physics Center zabaltzea edo IBMren ordenagailu kuantikoa hirira laster heltzea bezalako proiektuek, Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin izandako lankidetzari esker, hiriaren erreferentzialtasun hori indartzen dutela adierazi du.

“Etorkizunera begira, Donostiak mantendu behar duen apustu bat da hau”, adierazi du Goiak, eta zehaztu du Udalak eta Jaurlaritzak aurrerapausoak ematen dituztela Miramongo Parke Teknologikoa Illunbeko eraikinean handitzeko tramiteetan, zezen plaza erabilera anitzeko pabiloi bihurtzearekin bateragarri eginez.

Mugikortasuna da hiriak datozen urteetan izango duen beste erronka bat: Topoaren prestazioak hobetuko dituen trenbide-pasantea laster irekitzeak, Abiadura Handiaren etorrerak, Loiolako Erriberako trukagailuak edo azpiegitura horiei lotutako urbanizazioek (Easo eta San Martin, besteak beste) eta oinezkoentzako eremuek aldaketa sakona eragingo dute mugikortasunean eta pisu modalean. Goiak, gainera, AHTren geltoki berriaren gainean sortuko den plaza parke bihurtzeko konpromisoa agertu du, eta proiektu horretan lanean ari da Udala, Adifekin batera.

Horrez gain, Goiak Abiadura Handia Nafarroarekin Ezkioetik zehar lotzea defendatu du, “herrialde gisa uko egin ezinezko” kontua delako eta, bestela, Donostia eta Gipuzkoa zigortuko dituelako Mediterraneorako irteera konplexuagoa bihurtuz.

Udal garraioari dagokionez, dBuseko flota berritzeko hurrengo prozesua nabarmendu du, dozenaka autobus elektrikorekin, eta horrek hiriko CO2 aztarna nabarmen hobetzen eta murrizten lagunduko du, eta adierazi du Topoaren prestazio berriek autobus lineak hobetzea eta indartzea ahalbidetuko dutela.

Segurtasuna eta gizarte-kohesioa

Alkateak adierazi duenez, Udala hiri kohesionatua lortzeko lanean ari da, klase aberatsenen eta aukera gutxien dituztenen arteko arrakala murriztuz. Horretarako, Udalak eskaintzen dituen gizarte-zerbitzuak zehaztu ditu; izan ere, sektore ahulenei laguntzeko gizarte-programetara bideratutako hiru milioi eurotik gorako gastu arrunta du, eta laguntza-sare hori indartuko duten azpiegiturretan inbertitzeko bi milioi euro.

Prensa Oharra

Nota de Prensa



Segurtasunari dagokionez, Goiak azpimarratu du Udala “irmoa” izango dela delitua jazartzeko orduan. Hala, irmotasun hori “jarrera eta iritzi arrazistak hauspotzea bilatzen dutenen antipodetan” dagoela argitu du.

“Delituak egiten dituzten pertsoneri buruz ari gara, eta hiri honetan guztiok bete behar ditugun bizikidetzara-rauei buruz, bereizketarik egin gabe”, adierazi du.

Hiriaren garapenarekin lerrokatutako turismoa

Eneko Goiak, gainera, turismoaren kudeaketa beste erronka handi bat bezala kokatu du datozen urteetarako, estrategia turistikoa hiriaren garapenerako estrategiarekin berarekin lerrokatuz. Gogorarazi du Donostiak urteak daramatzala neurri arautzaileak hartzen, eta aurreratu du Plan Orokor berriak “nabarmen murriztuko duela hiri osoan ostatu berriak hartzeko aukera, eta erabat galaraziko duela etxebizitza-gunetan”.

Hiriak duela urte batzuetatik hartu dituen neurriei esker, erabilera turistikoko pisuen arloan, “Donostiaren bilakaera, eztabaida hau protagonismo handia hartzen ari den udalerrietan izandakoaren alderantzizkoa da”. Azkenik, bisitari gehiago etortzearekin lotutako udal zerbitzuen igoera ordaintzen lagunduko duen tasa turistiko bat antolatzeko beharra defendatu du; Goiaren arabera, diru sarrera hori udal diru-kutxetara bideratu beharko litzateke soilik.

Alkateak, gainera, aldaketa klimatikoari nola aurre egin hiriak egin beharreko beste erronketako bat dela adierazi du. Hala, Isuri Gutxiko Gunea laster martxan jarriko dela aipatu du, eta horrek mugatu egingo duela ibilgailuak zentrorra sartzea, 43 autobus elektriko berri sartuko direla dBusen flotan ehun milioi inguruko inbertsio globalarekin, edo hiriak neurriak hartu beharko dituela muturreko kostaldeko fenomenoak arintzeko. Era berean, ohartarazi du berotze globalaren ondorioz turismo-helmugak lekuz aldatzen ari direla, eta, horren ondorioz, bidaiari gehiago etorriko direla Euskal Autonomia Erkidegoa bezalako zonetara, klimatologia hobea dutelako.

Donostia, 2024ko urriaren 28a